

3 ENTZUMENA A1 XABOI NATURALA

ENTZUN ELKARRIZKETA ETA AUKERATU ERANTZUN ZUZENA:

1. Zergatik doa korrika Eider?

- A. Osasuntsua delako.
- B. Ikastaroa berehala hasiko delako.
- C. Xaboia erosi behar duelako.

2. Zer ikasiko du ikastaroan?

- A. Xaboi naturala nola egin.
- B. Sukaldeko olioia nola egin.
- C. Erabilitako xaboia nola egin.

3. Zein iraupen du ikastaroak?

- A. 10 minutu.
- B. 3 ordu.
- C. 2 ordu.

4. Ze osagai erabiliko dituzte xaboia egiteko?

- A. Ur destilatua, soda kaustikoa eta sukaldeko xaboia.
- B. Sukaldeko olioia, metalezko tresnak eta ur destilatua.
- C. Soda kaustikoa, ur destilatua eta erabilitako olioia.

5. Zergatik jantzi behar dira betaurrekoak?

- A. Soda kaustikoa arriskutsua delako.
- B. Ur destilatuak begietan mina ematen duelako.
- C. Sukaldeko olioia begietan ez sartzeko.

Transkripzioa:

XABOI NATURALA

JON: Eider! Baina nora zoaz korrika?

EIDER: Aiba Jon! Ez zaitut ikusi! Presaka nabil eta. Ikastaro batera noa xaboi naturala nola egin ikastera, eta hemendik hamar minutura hasiko da.

JON: Xaboi naturala nola egin? Erabilitako olioarekin egiten da, ezta?

EIDER: Bai, hala da.

JON: Eta, erraza al da xaboia egitea?

EIDER: Bada, ez dakit. Hiru orduko iraupena du ikastaroak. Kontatuko dizut amaitutakoan.

JON: Eta, osagaiak zuek eraman behar al dituzue?

EIDER: Ez, ez ditugu guk eraman behar. Olio, ur destilatua eta soda kaustikoa behar dira xaboia egiteko, baina arduradunek emango dizkigute beharrezko osagaiak eta tresnak.

JON: Soda kaustikoa ez al da arriskutsua?

EIDER: Bai, arriskutsua da. Hiru aholku eman dizkigute: xaboia aireztatua dagoen gela batean egitea, betaurrekoak eta eskularruak janzteak eta metalezko edukiontzi eta mahai-tresnak ez erabiltzea.

JON: Bada, segi bizkor, bestela ez zara iritsiko eta! Kontatuko didazu esperientzia!

EIDER: Bai, noski! Oparituko dizut nik egindako xaboia!